

## Diskriminazioak

TXILLARDEGI



**ESLOBAKIA-REN** askatasun berria hor dago. Egia da. Eta inolako deskalabrork eta kalterik gabe mamitu da.

Estatolaterk ziri gaitzota dute hor trabaturik. Ezin baitute betiko leloa errepikatu: nazioekien desmastiak, aberrikerien hilketak, eta beste, hor daudela lekuko hits... Esiobakiarrek, poza-aren ospatu dute Burujabetza berria.

Askoz ere gogokoago izan dute estatolaterk Bosniako arazoa. Han garbi agertu baita, aberizalekeriak ekartzin dituen deskalabrak eta negar-ibaiki, noraino diren lotsagarriak eta barkagaitzak.

Betikoen prentsak behar baino aisa maizago aipatu du Estonian eta Letonian erriar etorkinek jasaten ari diren 'diskriminazio' nazkagarria. Eta han ere, jakina, 'nazionalismoak' kakaztu omen ditu bazterrak. Lehenago, perestroika madarikatu hura mamitu arte, jendea pozik bizi zen Baltikoan; eta erriar etorkinek gostian edoskitzen zuten Bake-a-ren poza. Eta 'nazionalistak', jakina, isisilik...

Erriar diskriminatu-biktima-zapalduak, horretara, beren burua antolatzen hasiak dira. Letonian, adibidez, elkarte hauek sortu berri dituzte: Letoniako Erriar Hiritarren Elkargoa, Ohien Eskubideen Defentsa-Taldea, Faszismoaren menpeko preso-ohien Elkarte, Zuzenbide Sozialaren aldeko Gazteriaren Mοgimendua, eta abar. 'Diskriminazioari' amaiera eman diezaien eskatzeko, 'elkarte' berri horiek ultimatum bat bidali zioten Gorbunov letoniar Presidenteari joan den Azaroaren 26an...

ONUak berak, horrela, erriar 'diskriminatu' arregurak ezaguturik, batzorde berezi bat bidali du hara; eta joan den Abenduaren 7an Txosten bat ezagutarazi du. Ez omen du Letonian 'diskriminaziorik' kausitu.(!)

Etorkinen mamu etengabea, jakina, Hizkuntzaren Legea da. Baltikoko Errepubliketan erriar ezin bizi izatea, gehiegizkoa zaie... Lege 'diskriminaziale' hori behar da deuseztatu. Baina Perm-en estoniar ezin bizitzea, demokratikoa osoki.

Euskaldun irakurleak ez du eraskin beharrik hori gutzia berehala ulertzeko.

## Erregeei Olentzero

RAMON ETXEZARRETA



**KAIXO** errege ma-  
goak:

Ez nuen zuei ezer idazteko eta eskatzeko asmorik. Joan samarrak gaude gu pakea eta patxada, geuk inori ematen ez dioguna, ez den beste ezer inori eskatzen ibiltzeko, baina Olentzero erdi hutsagin didanez norbaiti heldu beharko.

Bada nik nahiko nuke, zera, hori, debaldeko gauza. Pakea, osasuna, alegantzia, denonzat lana, goserik ez, xenofobia berriz gutxiago, berdintasuna goitik, zori ona, askatasuna eta denon zerrenda hori.

Piska bat gehiago eskatzea libre bada berriz, zera, dozerdi bat periodiku euskaraz, ikastola publikoak, telebista ona eta ordu gutxiakoa denbora gehiegi ez gaitzeco, ahalik eta lan gutxiengina eginda bizitzea, euskara *puto amo* izatea, han eta hemen, ezkerria eta eskuina ondo bereiztea eta horrelako gauzaz osatutako sorta bat.

Letzeko zerbaite ere nahi nuke, Cromptonen *Guillermo y el cerdo premiado*, gure puntako nobela berriak, berrien berriak ere bai, oraindik arian ari diren pertsonaia askoren testamentu politikoak, seinale ona bait litzateke, eta Sarrionandiarena ez den edozer gauza, letzeko noski.

Eta eskatzea, nori eskatu erabakitzea bazalaxe, demokratikoa denez, Olatzungero udalarentzat eskatu nahi nizukeke Olentzerori buruzko zerbaite. Neuri? Neuri ez. Nik baino premia gehiago izango dute haiek. Izan dadila edozer baina ez Manuel Lekuonarenik, euskaldun marxista izan nahi baitut.

## HEMEROTEKA

●egin

### Eguberri uniformeak

Gaur gauean trakatan-trakatan etorriko zaizkigun Errege Magoek ospea galdu dute azkenaldion. Harrigarri samar gertatzen bada ere, Errege Magoek ospea galtzearekin batera Euskal Herrian indarberri egin da Olentzero begigorriaren erri paganoetan ditu zainak Eguberri; nazio bakoitzaren izate-moldea errespetatu liturgia erlijioso kristauen ondoan garatu da. Izei eta Noel zuriak, errenoak... zer zaizkie, ordea, Brasil, Hegoafrika edo Japoniakoei?

EDITORIALA

### ● EL CORREO ESPAÑOL

### Hamar urte beranduago

Euskal gizartearen ETB-1ek betetzen duen funtzioaz somatzen den gizarte adostasun zabalaren oso bestelakoa da ETB-2k sortzen duen eztabaida; hori, gainera, bere programazioan hertsiki kate komertzial gisa jokatzeaz gain, %80an Kultura Sailaren aurrekontutik ateratako transferentzien bidez finantzatu



FORGES / EL MUNDO

dago, horrela Departamentu horretan 1993. urterako aurrikusitakoaren %56 xurgatuz. Ez Kulturako arduradun politikoak ez EITBkoak ez dira gauza izan instituzionalizat har daitekeen telebista duin bat lortzeko eta, aitzitik, finantzaketa formula alderdikoiak sustatu dituzte Euskal Herrian dagoen komunikabide-sektore pribatuaren kalteetan. Funtzionatzen 6 urte eman ondoren «ETB-2 berriro sortuko litzateke» baieztatzea, edo hori auzitan jarztearen azalpen gisa, EITBko zuzendari nagusiak adierazi duen bezala, «zenbait pentsamendu politikorentzat su-

mingarria da euskal nortasuna» sendotzea argudiotzat erabiltzea, sakonean dagoen benetako eztabaidari itzuri egitea da. Eta hori, Euskadiko behar errealeko koherentziarik gabeko gastu lehentuan horrek mereri duen gaitzespen sozial eta politikoa baino ez da. ETB-1ek herriaren zerbitzurako diharduen bitartean, ETB-2 botere, eragin eta lehizate klabetan uler daitezkeen beste helburuetarako ari da lanean. Euskal Herriak, egungo egoeran eta dagoen telebista eskaintzerkin, ezin ordu ezkaizean eta onartu behar ez duen kostu bat eraginez.

EDITORIALA

## LUZENDARIARI

### Saskitxoak eta saskitzarrak

«Aizak, ba al dakik...? ... Aurtan ez diagu Gabonetako 'paketerik' jasoko... krisialdia zegok motel...!».

Hasperena. Lankidearen aurpegieran kamusada isladatzen zen.

Gainontzeko lankidea eta bereziki herriko jubilatuen irudiak etorri zitzaizkidan burura. Honetan ere betiko krisialdiak, betikook ordaindu behar!

Guri krisialdia —langabezia, pobrezia eta honek dakarren gizarte mailako harremanen endekapena— betierekoa bihurtzen zaigun bitartean, boterendun guzti hauek (batzu geuk aukeratuak, beste batzu, garrantzitsuenak, betidanik egon direnak) ez dute Gabonetako 'saski' faltarik izango! Ez

horixe! Beraiena bai 'saskitzarra'!

Eta jakina, berauena betetzen den neurrian gurea hustuz doa. Ai ene! Gure 'saskitxoetan' samina eta etsipena, besterik ez zaigu geratzen ari! Krisialdia? Bai jaun andreok! Baina guretzat: zuek beti bezain ondo bizi zaitezten. Gure lepotik jakina.

Ezetz? Ikus dezagun aurrean dugun 'panorama'. Gazteok lehenengo lanaren zain.

Helduok edo behin-behineko kontratu amaigabeetan edo... kale gorria. (Gainera, gobernuok, praktikatzin duten 'sozialismo' berezi horren izenean, 'despido libre' delakoaren 'aukera' aztertuko dutela baieztatzen digute).

Emakumeak, —instituzioek antolatutako emakumearen aldeko kanpaina 'politik' ikusi dituzte?— lanerako eskubidea galduak, berauek baitira lan erregulazio guz-

tien lehenengo biktimak, etxezuloan egon behar... eta... ba betikoa: kalean ibiltzean kontuz ibili ze batzuen uestez probokatzaile hutsak zarete, zuen gorputzaren jabeak izan nahi baduzue kontuz ibili ze moralerik guztien izenean, nahi eta nahi ez, seme-alabak izatera kondenatuko baitzaituzte, bestela gizonek erabakitako legegiaz gizonek epaitu eta kondenatuko zaituztete, pairatutako sufrimendua eta etsipenari kartzelaren saria emanez...

Hau duk marka hau! Eta gu Gabonetako 'paketxoaren' galeragatik kezkatuak!! Zorioneko gizarte honetan herri xeheak saskia beti hutsik eduki behar.

«Hauxe esango diat motel: doazela pikurara haiek eta haiei atxiki hipokrita guztiak!!».

JOXEMARI GOIENOLA  
Portugalete (Bizkaia)

## GAIA JARRITA



### Errege eguna

Errege hoiek etortzen dirata kandelak su ta kian, gurasoentzat atsegina da umetxoan aitzakian. Agur eginez pasatzen dirazaldi gaineko aulkian, ordu batzuek pasa ditzagun zorioitsu eta pakian.

JON AZPILLAGA

## Egunkaria

Batzorde Parakidea: 72564 E / Lege Gortialdea: SS 800/90

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentes: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: INAKI URIA

Zuzendariordea: LUZIEEN ETXEZAHARRETA

Zuzendari Komertziala: JUAN INAZIO HARTSUAGA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publikizatzaia: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02.

Pabiloko / 20160 Lasarte-Oña / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egoitza soziala, Publikizatzaia eta Administrazioa: Antso

Jakintua, 16-1 / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Arabara: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) /

31011 Iruñea / ☎ 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma / 48002 Bilbo /

☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 503 Posta kutxatila,

/ 64105 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11